

**LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA**

**PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL**



**OSTALARITZA
ETA TURISMOA**

SUKALDARITZA ETA GASTRONOMIAKO TEKNIKARIA

3. modulua: Sukaldaritzako Teknikak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA**

**PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL**

**OSTALARITZA
ETA TURISMOA**

SUKALDARITZA ETA GASTRONOMIAKO TEKNIKARIA

3. modulua: **Sukaldaritzako Teknikak**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**

Lanbide Heziketak eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia: 1. a, 2009ko apirila

Ale-kopurua: 5 0 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Xabier Aretxederreta Solchaga

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL

www.kei-ivac.com



Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

L.G.: BI-1834/09

Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK						UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
B 1	B 2	B 3	B 4	B 5	B 6		
						UD 0: Moduluaren aurkezpena.	1
X						UD 1: Egosteko metodoak: Elementu hezeekin eta koipetsuekin eta mistoa.	29
	X					UD 2: Aplikazio ugariko oinarriko elaborazioak prestatzea: hondoak, loditzeak eta gurin konposatuak.	15
	X					UD 3: Aplikazio ugariko oinarriko elaborazioak prestatzea: saltsa lodituak eta emultsionatuak.	20
		X				UD 4: Maneatze-prozesuak	10
		X				UD 5: Kontserbatzeko eta lehengoratzeko prozesuak	5
X	X	X				UD 6: Potaje, krema eta salden elaborazioa	10
X	X	X				UD 7: Barazki-plateren eta entsaladen elaborazioak	10
X	X	X				UD 8: Zizka-mizken oinarriko elaborazioak	20
X	X	X				UD 9: Pasten, arrozen eta arrautzen oinarriko elaborazioak	20
X	X	X				UD 10: Arrainen oinarriko elaborazioak	50
X	X	X				UD 11: Itsaskien oinarriko elaborazioak.	30
X	X	X				UD 12: Haragien oinarriko elaborazioak	60
X	X	X				UD 13: Oinarriko elaborazioak hegaztiekin eta hondakinekin	20
			X			UD 14: Hornigaiak eta dekorazio-elementuak egitea	15
				X		UD 15: Akaberak eta aurkezpenak egitea	5
					X	UD 16: Sukaldaritzako zerbitzua	10
GUZTIRA							330 ordu

1. multzoa: Egosteko teknikak gauzatzea.

2. multzoa: Aplikazio ugariko oinarriko elaborazioak prestatzea.

3. multzoa: Sukaldaritzako oinarriko elaborazioak prestatzea.

4. multzoa: Hornigaiak eta dekorazio-elementuak egitea.

5. multzoa: Akaberak eta aurkezpenak egitea.

6. multzoa: Sukaldaritzako zerbitzua garatzea..



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA.

Iraupena: 1 ordu

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Moduluen garapeneraren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.
2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.
3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.
4. Moduluen unitate didaktikoen arteko eta moduluen eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.
5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.

EDUKIAK		Multzok					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 						
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluen ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluen helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 						
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluen garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 						



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1 10	m	x	x	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 m	x	x	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arbela. ▪ Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. ▪ Kronogramak. ▪ Informazioa duten fotokopiak.
J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 m	x	x	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.



J-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagutzen identifikazioa.	5 30	m	x	x	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeo aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.
---	------	---	---	---	---	---	-----------------

OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko ekipoak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu daiteke, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera bat egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.

1. unitate didaktikoa: EGOSTEKO METODOAK ELEMENTU HEZEEKIN ETA KOIPETSUEKIN ETA MISTOA

Iraupena: 29 ordu

IE1: Egosteko teknikak gauzaten ditu, eta horien ezaugarriak eta aplikazioak identifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Erlazionatutako lanbide-terminologia interpretatzea.
2. Egosteko teknikak deskribatzea eta sailkatzea.
3. Egosteko teknikak elementu hezeekin identifikatzea eta hainbat jenerori aplikatzeko aukerekin erlazionatzea.
4. Egosteko teknikak garatu aurreko premiak erlazionatzea eta zehaztea.
5. Teknika bakoitza aplikatzeko fase eta modu bereizgarriak identifikatzea
6. Egosteko teknikak ezarritako prozedurei jarraiki gauzatea.
7. Lortutako emaitzen arabera egon daitezkeen hautabideak bereiztea.
8. Eragiketa guztiak egin dituen osasun- eta higiene-araudia, laneko segurtasuneko eta ingurumena babesteko kontuan hartzea.

EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Egosteko teknikak identifikatzea eta hainbat jenerori aplikatzea. • Egosteko hainbat teknika ezarritako prozeduren arabera gauzatea. 	X					
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Erlazionatutako lanbide-terminologia. • Egosteko teknikak. Hedatzea, kontzentratzea eta bestelakoak: Ezaugarriak. Egosketa motak. • Prozesuaren fase esanguratsuak: Aplikazioak 	X					
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Sukaldaritzako elaborazioak prestatzean ordena eta garbitasuna baloratzea. • Sukaldaritzako elaborazioak gauzatean zorrotz eta arduraz jokatzeta. • Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea. • Elaborazioetan aldakuntzak ekartzean ekimena eta izaera kritikoa izatea. 	X					



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena. Modulu honek zikloa osatzen duten gainerako moduluekin duen zeharkako erlazioa.	2, 3, 8	1 o.	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Ondoren adierazitako galdera egin daiteke hasi aurretik: Zeintzuk dira elementu hezeekin erabiltzen diren egosteko metodoak? Galderen bitartez ikasleak gogoeta egitera eta parte hartzera animatu nahi dira, hartara, ikasleek aurretiaz dituzten ezagupenak aktibatzeke, ikaskuntzako helburuekin loturak ezartzeko eta, era berean, egosteko aukera ematen duten elementu hezeak aztertzeke.	Ikasleek aurretik dituzten ezagupenak azalertzeko eta ikaskuntzaren xede diren ezagupenekin erlazioak ezartzeko.	Unitatea aurkezteko eskema grafikoa.
J2-E1 Material eta terminologia egokia ezagutzeko eta erabiltzeko hasierako azalpenak eta ebaluazioa.	1,2,3,4	3 o.	X	X	Erabiliko diren berariazko terminoei eta materialari buruzko azalpenak emango dira. Kasu bakoitzean erabilera zuzena eta egokia egiten dela zaindu behar da.	Ikasleek elementu hezeen egosketarekin erlazioetatutako kontzeptuak ondo ulertzea eta sukaldaritzako produktu desberdinekin ondo erlazioztatzea lortu nahi da.	Berariazko terminoen zerrenda. Lantegiko lanabesak eta makineria.
J3 Elementu hezeekin egiten diren egosketa mota desberdinekin erlazioetatutako oinarritzko ideia edo kontzeptuei buruzko azalpena.	2,3,4,5	2 o.	X		Irakasleak elementu hezeekin egiten diren egosketa motak azalduko ditu laburki. Azalpena indartzeko, likido hotz edo bero baten egosketa erakutsi dezake, eta kasu bakoitzean egosiko den produktuaren ezaugarriak eta lortzen diren	Kontzeptuak aurkeztuko dira eta, era berean, parte-hartzera eta euren ideiak eta ezagupenak alderatzera eta jakinaraztera animatuko dira ikasleak.	Egosketa mota desberdinei buruzko eskema grafikoa.



					emaitzak azpimarratuko ditu. Egosteko metodo desberdinak aurkeztuko zaizkie ikasleei galderen bitartez. Izan ere, ikasleak parte hartzera eta ekarpenak egitera animatu nahi dira, talde osoak ideia eta esanahi berriak partekatzeke.		
J4 Elementu koipetsuekin egiten diren egosketa mota desberdinekin erlazionatutako oinarritzko ideia edo kontzeptuei buruzko azalpena.	2,3,4,5	2 o.	X		Irakasleak elementu koipetsuekin egiten diren egosketa motak azalduko ditu laburki. Azalpena indartzeko, likido hotz edo bero baten egosketa erakutsi dezake, eta kasu bakoitzean egosiko den produktuaren ezaugarriak eta lortzen diren emaitzak azpimarratuko ditu. Egosteko metodo desberdinak aurkeztuko zaizkie ikasleei galderen bitartez. Izan ere, ikasleak parte hartzera eta ekarpenak egitera animatu nahi dira, talde osoak ideia eta esanahi berriak partekatzeke.	Kontzeptuak aurkeztuko dira eta, era berean, parte-hartzera eta euren ideiak eta ezagupenak alderatzera eta jakinaraztera animatuko dira ikasleak.	Egosketa mota desberdinei buruzko eskema grafikoa.
J5 Elementu mistoekin egiten diren egosketa mota desberdinekin erlazionatutako oinarritzko ideia edo kontzeptuei buruzko azalpena.	2,3,4,5	2 o.	X		Irakasleak elementu mistoekin egiten diren egosketa motak azalduko ditu. Azalpena indartzeko, likido hotz edo bero baten egosketa erakutsi dezake, eta kasu bakoitzean egosiko den produktuaren ezaugarriak eta lortzen diren emaitzak azpimarratuko ditu. Egosteko metodo desberdinak aurkeztuko zaizkie ikasleei galderen bitartez. Izan ere, ikasleak parte hartzera eta ekarpenak egitera animatu nahi dira, talde osoak ideia eta esanahi berriak partekatzeke.	Kontzeptuak aurkeztuko dira eta, era berean, parte-hartzera eta euren ideiak eta ezagupenak alderatzera eta jakinaraztera animatuko dira ikasleak.	Egosketa mota desberdinei buruzko eskema grafikoa.
J6 Elementu hezeekin likido	1,2,3	3 o.		X	Ikasleak ingeles erako egosketa bat, galdaketa	Ikasleek bereganatu dituzten	Ontziteria eta lanabesak eta



berotik egiten diren egosketa moten praktika autonomoa, produktuaren ezaugarriak eta lortu nahi den emaitza kontuan hartuta.	4,5,6 7,8				bat, saltsa laburreko egosketa bat eta lurrinetan kozinatutako egosketa bat egingo ditu.	ezagupenak praktikan jartzeko eta sukaldaritzako produktu bakoitza dagokion egosketa motarekin erlazionatzeko.	sukaldaritzako makina propioak. Lehengai hautatua.
J7 Elementu hezeekin likido hotzetik egiten diren egosketa moten praktika autonomoa, produktuaren ezaugarriak eta lortu nahi den emaitza kontuan hartuta.	1,2,3 4,5,6, 7,8	3 o.		X	Ikasleak egosketa luze bat, zuritze bat eta salda zurian beste egosketa bat egingo ditu.	Ikasleek bereganatu dituzten ezagupenak praktikan jartzeko eta sukaldaritzako produktu bakoitza dagokion egosketa motarekin erlazionatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Lehengai hautatua.
J8 Elementu koipetsuekin likido hotzetik egiten diren egosketa moten praktika autonomoa, produktuaren ezaugarriak eta lortu nahi den emaitza kontuan hartuta.	1,2,3,4	3 o.		X	Ikasleak erregosi bat eta konfitatu bat egingo ditu.	Ikasleek bereganatu dituzten ezagupenak praktikan jartzeko eta sukaldaritzako produktu bakoitza dagokion egosketa motarekin erlazionatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Lehengai hautatua.
J9 Elementu koipetsuekin berotik egiten diren egosketa moten praktika autonomoa, produktuaren ezaugarriak eta lortu nahi den emaitza kontuan hartuta.	1,2,3 4,5,6 7,8	3 o.		X	Ikasleak produktu bat labean eta plantxan edo parrillan egingo du, frijitura bat egingo du (babesarekin eta gabe) eta salteatu bat prestatuko du.	Ikasleek bereganatu dituzten ezagupenak praktikan jartzeko eta sukaldaritzako produktu bakoitza dagokion egosketa motarekin erlazionatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Lehengai hautatua.
J10 Egosketa misto mota bakoitzaren praktika autonomoa, produktuaren ezaugarriak eta lortu nahi den emaitza kontuan hartuta.	1,2,3 4,5,6 7,8	4 o.	X	X	Ikasleak txingarreztatuta eta ragout bat prestatuko ditu.	Ikasleek bereganatu dituzten ezagupenak praktikan jartzeko eta sukaldaritzako produktu bakoitza dagokion egosketa motarekin erlazionatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaiak.
E2 Irakasleak emandako produktuari dagokion egosketa mota aukeratzea, aurreko	1,2 3.4 5.6	3 o.		X	Irakasleak produktu bat aukeratuko du eta dagokion egosketa egiteko eskatuko die ikasleei.	Ikasleek aukeratzeko edo edukiak barneratzeko eta prozesu osoa ulertzeko duten gaitasuna	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaiak.



jardueretan aipatutako faktoreak kontuan hartuta. Egosketa egitea eta lortutako emaitzak aztertzea.	7.8					ebaluatzeko. Lortutako emaitzak aztertzeko eta espero zirenak ote diren jakiteko baliatuko da ariketa.	
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> • Egosketa teknikak gauzatzea multzoko edukiak garatzen dituzten unitate didaktikoak, modulu honetako UD guztiekin daude erlazionatuta zeharka, bai eta prestakuntza-zikloko modulu guztiekin ere. Izan ere, egosteko teknikak produktuak lortzeko prozesua baldintzatzen dute. Eduki multzo hau laneko arriskuen prebentzioarekin eta Ingurumenaren babesarekin dago erlazionatuta, manipulazio-prozesuari eta eraldaketa-prozesuari dagokienez. • Eduki multzoa (lehen ikaskuntzaren emaitzarekin erlazionatuta da goena) zeharka lantzeko proposamena egiten da. Horrenbestez, egosketa UD guztietan lantzen da. Bestalde, ikaskuntza-prozesuaren hasieran erakutsi daiteke, lagungarria izan baitaiteke berau ezagutzea kozinatze prozesuetan murgildu aurretik. • 1 UD amaitzean, ikasleek egosteko teknika desberdinak bereiztea lortu nahi da, kasu bakoitzean erabiltzen den produktua kontuan hartuta eta ezarritako prozedurei jarraiki. 							

2. unitate didaktikoa: APLIKAZIO UGARIKO OINARRIZKO ELABORAZIOAK PRESTATZEA: HONDOAK, LODITZEAK ETA GURIN KONPOSATUAK

Iraupena: 15 ordu

IE2: Aplikazio ugariko oinarritzko elaborazioak prestatzen ditu eta prozedura guztiak ezagutzen eta aplikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Aplikazio ugariko oinarritzko elaborazioak eta horiek izan ditzaketen aplikazioak deskribatzea eta sailkatzea.
2. Hondoak, saltsak eta aplikazio ugariko beste zenbait oinarritzko elaborazio egiteko prozedurak garatzeko beharrezkoak diren elementu guztien erabilgarritasuna egiaztatzea.
3. Aplikazio ugariko oinarritzko elaborazioak lortzeko prozedurak egitea, ezarritako prozedurei jarraiki.
4. Lortutako emaitzen arabera har daitezkeen neurri zuzentzaileak zehaztea.
5. Kontserbatzeko bitarteko prozedurak garatzea, elaborazioen premiak eta ondorengo erabilera kontuan hartuta.
6. Eragiketa guztiak egin dituen osasun- eta higiene-araudia, laneko segurtasuneko eta ingurumena babesteko kontuan hartzea.

EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Aplikazio ugariko oinarritzko elaborazioak lortzeko prozedurak aplikatzea. • Aplikazio ugariko oinarritzko elaborazioak prestatzea eta lortutako emaitzak baloratzea. • Aplikazio ugariko oinarritzko elaborazioak kontserbatzea eta/edo lehengoratztea. 		X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Aplikazio ugariko oinarritzko elaborazioak. Oinarritzko hondoak, hondo osagarriak, saltsak: Ezaugarriak. Sailkapena. • Prozesuaren egitura eta fase esanguratsuak. • Saltsa konplexuetarako aplikazioak: haragi-platerak bustitzea, arrainak, eta hornigaiak. 		X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Elaborazioetan ordena eta garbitasuna baloratzea. • Elaborazioak gauzatzean ezarritako arau eta protokoloekiko jarrera egokia eta errespetuzkoa izatea. • Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea. • Osasun- eta higiene-araudia, laneko segurtasuneko eta ingurumena babesteko zorrotz betetzea. 		X				



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena. Unitate honek moduluko gainerako unitateekin duen erlazioa.	1	1 o.	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Ondoren adierazitako galdera egin daiteke hasi aurretik: Zer elementu erabiliko zenuke saltsa bat edo bestelako prestaketa bat loditzeko? Galderen bitartez ikasleak gogoeta egitera eta parte hartzera animatu nahi dira, hartara, ikasleek aurretiaz dituzten ezagupenak aktibatuzko, ikaskuntzako helburuekin loturak ezartzeko eta, era berean, sukaldaritzako prestakin bat loditzeko eta bustitzeko erabil daitezkeen elementuak aztertuko.	Ikasleek aurretik dituzten ezagupenak azalertzeko eta ikaskuntzaren xede diren ezagupenekin erlazioak ezartzeko.	Unitatea aurkezteko eskema grafikoa.
J2 Bustitzeko eta loditzeko elementu mota desberdinei eta gurin konposatuei buruzko azalpen orokorra.	1,2	1 o.	X	X	Irakasleak hondo, loditzeko elementu eta gurin konposatu desberdinak azalduko ditu laburki. Azalpena indartzeko, adibideak jarriko ditu, aplikatuko den sukaldaritzako elaborazioaren eta lortu nahi den emaitzaren arabera. Lotura-hondo eta gurin konposatu desberdinak aurkeztuko zaizkie ikasleei galderen bitartez. Izan ere, ikasleak parte hartzera eta ekarpenak egitera animatu nahi dira, talde osoak ideia eta	Kontzeptuak aurkeztuko dira eta, era berean, parte-hartzera eta euren ideiak eta ezagupenak alderatzera eta jakinaraztera animatuko dira ikasleak.	Lotura-hondo moten eta gurin konposatu desberdinen eskema grafikoa.



					esanahi berriak partekatzeko.		
J3 Elementu hezeekin likido hotzetik egiten diren hondo moten praktika autonomoa, produktuaren ezaugarriak eta lortu nahi den emaitza kontuan hartuta.	3,4,5,6	2 o.		X	Ikasleak hondo ilun bat, hondo zuri bat, fumet bat eta glace bat egingo ditu.	Ikasleek bereganatutako ezagupenak praktikan jartzeko eta kasu bakoitzean egin nahi diren aplikazioei dagozkien oinarritzko hondoak erlazionatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Lehengai hautatua.
J4 Saltsak loditzeko elementu desberdinekin elaborazio bat egiteko praktika autonomoa, produktuaren ezaugarriak eta lortu nahi den emaitza kontuan hartuta.	3,4,5,6	2 o.		X	Ikasleak saltsa bat lodituko du, ogi-irinarekin, patata eta arrozarekin, arto-fekularekin, ogiarekin, arrautzarekin, eta saltsa urritu ondoren.	Ikasleek bereganatutako ezagupenak praktikan jartzeko eta kasu bakoitzean egin nahi diren aplikazioak eta loditzeko elementuak erlazionatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Lehengai hautatua.
J5-E1 Gurin konposatu esanguratsu batzuen praktika autonomoa eta ebaluazioa.	3,4,5,6 3	o.	X	X	Ikasleak <i>maitre d'hotel</i> gurin bat eta kanapeetarako gurin bat prestatuko ditu.	Ikasleek bereganatutako ezagupenak praktikan jartzeko eta gurin konposatuak eta lortu nahi diren emaitzak erlazionatzeko. Gauzatze-prozesua ebaluatzen eta lortutako emaitzak aztertzen.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Lehengai hautatua.
E2 Bustitzeko elementu bat hautatzea, irakasleak adierazitako sukaldaritzako elaborazioaren arabera eta J3 atalean aipatutako faktoreak kontuan hartuta. Hondoa egitea eta lortutako emaitzen azterketa.	2,3,4,5,6	3 o.	X	X	Irakasleak sukaldaritzako elaborazio bat aukeratu eta beratu bustitzeko hondorik egokiena egiteko eskatuko die ikasleei.	Ikasleek aukeratzeko edo edukia barneratzeko eta prozesu osoa ulertzeko duten gaitasuna ebaluatzen. Lortutako emaitzak aztertzen eta espero zirenak ote diren jakiteko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaiak.



OHARRAK

- Aplikazio ugariko oinarriko elaborazioak prestatzea multzoko edukiak garatzen dituzten unitate didaktikoak, modulu honetako UD guztiak daude erlazionatuta zeharka, bai eta prestakuntza-zikloko modulu guztiak ere. Izan ere, oinarriko elaborazioek produktuak lortzeko prozesua baldintzatzen dute. Eduki multzo hau laneko arriesken prebentzioarekin eta langurumenaren babesarekin dago erlazionatuta, manipulazio-prozesuari eta eraldaketa-prozesuari dagokienez.

3. unitate didaktikoa: APLIKAZIO UGARIKO OINARRIZKO ELABORAZIOAK PRESTATZEA: SALTSA LODITUAK ETA EMULTSIONATUAK PRESTATZEA

Iraupena: 20 ordu

/E2: Aplikazio ugariko oinarrizko elaborazioak prestatzen ditu eta prozedura guztiak ezagutzen eta aplikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Aplikazio ugariko oinarrizko elaborazioak eta horiek izan ditzaketen aplikazioak deskribatzea eta sailkatzea.
2. Hondoak, saltsak eta aplikazio ugariko beste zenbait oinarrizko elaborazio egiteko prozedurak garatzeko beharrezkoak diren elementu guztien erabilgarritasuna egiaztatzea.
3. Aplikazio ugariko oinarrizko elaborazioak lortzeko prozedurak egitea, ezarritako prozedurei jarraiki.
4. Lortutako emaitzen arabera har daitezkeen neurri zuzentzaileak zehaztea.
5. Kontserbatzeko bitarteko prozedurak garatzea, elaborazioen premiak eta ondorengo erabilera kontuan hartuta.
6. Eragiketa guztiak egin dituen osasun- eta higiene-araudia, laneko segurtasuneko eta ingurumena babesteko kontuan hartzea.

EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Aplikazio ugariko oinarrizko elaborazioak lortzeko prozedurak aplikatzea. • Aplikazio ugariko oinarrizko elaborazioak prestatzea eta lortutako emaitzak baloratzea. • Aplikazio ugariko oinarrizko elaborazioak kontserbatzea eta/edo lehengoratztea. 		X X X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lehengaien errendimendu-fitxak. • Sukaldaritzako oinarrizko elaborazioak: Sailkapena eta eskema. • Prozesuaren egitura eta fase esanguratsuak. • Lortzen diren emaitzak. 		X X X X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Sukaldaritzako elaborazioetan ordena eta garbitasuna baloratzea. • Sukaldaritzako elaborazioak gauzatzean zorrotz eta arduraz jokatztea. • Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea. • Elaborazioetan aldakuntzak ekartzean ekimena eta izaera kritikoa izatea. 		X X X X				

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena. Unitate honek moduluko gainerako unitateekin duen erlazioa.	1	0,5 o.	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Ondoren adierazitako galdera egin daiteke hasi aurretik: Zer da saltsa loditu bat eta/edo emulsionatu bat? Galderen bitartez ikasleak gogoeta egitera eta parte hartzera animatu nahi dira, hartara, ikasleek aurretiaz dituzten ezagupenak aktibatzeke, ikaskuntzako helburuekin loturak ezartzeko eta, era berean, saltsa loditu eta emulsionatu desberdinak aztertzeke.	Ikasleek aurretik dituzten ezagupenak azalertzeko eta ikaskuntzaren xede diren ezagupenekin erlazioak ezartzeko.	OCDa Unitatea aurkezteko eskema grafikoa
J2 Saltsa emulsionatu eta saltsa loditu desberdinen azalpen orokorra.	1,2	0,5 o.	X		Irakasleak saltsa emulsionatu eta loditu desberdinak azalduko ditu laburki. Azalpena indartzeko, adibideak jarriko ditu, aplikatuko den sukaldaritzako elaborazioaren eta lortu nahi den emaitzaren arabera. Saltsa emulsionatu eta loditu desberdinak aurkeztuko zaizkie ikasleei galderen bitartez. Izan ere, ikasleak parte hartzera eta ekarpenak egitera animatu nahi dira, talde osoak ideia eta esanahi berriak partekatzeke.	Saltsa lodituaren eta emulsionatuaren arteko desberdintasuna ezagutzeko. Eta saltsa mota bakoitza osatzen duten elementuak ezagutzeko.	Saltsa loditu eta emulsionatu moten eskema grafikoa.
J3 Saltsak loditzeko elementu egokiak aukeratzeko praktika autonomoa.	2,3	1 o.		X	Ikasleak mota bakoitzeko loditze bat prestatuko du, guztiak aztertzeke eta dagokien loditu beharreko saltsa motarekin erabiltzeke eta erlazionatzeko; era berean, kasu bakoitzean	Ikasleek saltsa mota bakoitza, dagokion loditze-elementuarekin edo loditze-elementu egokiarekin erlazionatzeko gaitasuna garatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Lehengai hautatua.



					lortu nahi den emaitzaren arabera, erabili beharreko proportzio egokiena aukeratu beharko du.		
E1 Loditzeei eta saltsak loditzeko erabiltzen diren proportzioen ebaluaziozko proba	3,4,5,6	1 o.		x	Ikasleak loditze-elementu egokiena aukeratu beharko du, proportzio egokia erabili eta dituen ezagupen guztiak saltsak egiteko edo loditzeko erabiliko ditu.	Loditze-elementu egokiena hautatzeko eta saltsa mota bakoitzarekin erlazionatzeko gaitasuna ebaluatzeko. Loditze-elementuak proportzio egokienean erabiltzeko ikasleek duten gaitasuna ebaluatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaia.
J4-E2 Maneatze-eta aromatizazio-tekniken praktika autonomoa eta autoebaluazioa eta emaitzen balorazioa.	3,4,5,6	2 o.		X	Ikasleak saltsa bakoitza maneatuko eta aromatizatuko du, modurik egokienean, eta lortutako emaitza aztertuko du: testura, lodiera eta zaporea; zuzenketak egingo ditu beharrezkoa denean.	Lortutako emaitza baloratu eta izan daitezkeen akatsak zuzenduz, ikasleek autoebaluazioa egiteko gaitasuna bereganatzea bilatzen da.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaia.
J5-E3 Oinarrizko saltsak prestatzeko praktika autonomoa eta ebaluazioa.	3,4,5,6	2 o.	X	X	Ikasleak mota bakoitzeko saltsa bat prestatuko du, guztiak aztertzeko eta dagokien loditzeekin erabiltzeko eta erlazionatzeko; era berean, kasu bakoitzean lortu nahi den emaitzaren arabera, erabili beharreko proportzio egokiena aukeratu beharko du. Ikasleak mota bakoitzeko saltsa emulsionatu bat prestatuko du: tenperatura egokia eta kasu bakoitzean dagokion emulsionatzailea erabiliko du. Kasu bakoitzean maneatzeko eta aromatizatzekeo teknika egokiak erabiliko ditu.	Oinarrizko saltsak prestatzeko orduan, ikasleek bereganatutako trebetasunak garatzeko. Lortutako emaitzak eta gauzatze-prozesua ebaluatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaia.
J6-E4 Saltsa deribatuak osatzen dituzten produktuen hautapen autonomoa eta ebaluazioa, eta saltsa deribatu horiek egiteko	3,4,5,6	3 o.		X	Ikasleak oinarrizko saltsa jakin bat hartuko du abiapuntutzat eta, hortik, saltsa deribatuak egiteko beharrezkoak diren osagaiak hautatuko ditu eta saltsa deribatuak egingo ditu.	Sukaldaritzako elementuak dagozkien oinarrizko saltsekin erlazionatzeko eta saltsa deribatuak egiten ikasteko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaia.



praktika autonomoa.						
J7 Oinarrizko saltsen eta dagozkien saltsa deribatuen errezeta-liburu sistematiko bat osatzeko praktika autonomoa.	3,4,5,6	8 o.		X	Ikasleak lantegi-ikasgelan prestatutako edo ikusitako oinarrizko saltsa eta saltsa deribatu guztiak errezeta-liburu batean jasoko ditu.	UDren ideia orokorra garatzeko. Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaia.
E5 Oinarrizko saltsen eta dagozkien saltsa deribatuen errezeta-liburu sistematikoaren aurkezpena eta ebaluazioa.	2,3,4,5,6	2 o.	X		Ikasleak lantegi-ikasgelan prestatutako edo ikusitako oinarrizko saltsa eta saltsa deribatu guztiak jasotzen dituen J7 errezeta-liburua aurkeztuko du.	Ezagupenak indartzeko eta osatzeko eta aurretik ikasitakoa osatzeko. Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaia.

OHARRAK

- Aplikazio ugari oinarrizko elaborazioak prestatzea multzoko edukiak garatzen dituzten unitate didaktikoak, modulu honetako UD guztiekin daude erlazionatuta zeharka, bai eta prestakuntza-zikloko modulu guztiekin ere. Izan ere, oinarrizko elaborazioek produktuak lortzeko prozesua baldintzatzen dute. Eduki multzo hau laneko ariskuen prebentzioarekin eta langurumenaren babesarekin dago erlazionatuta, manipulazio-prozesuari eta eraldaketa-prozesuari dagokienez.

4. unitate didaktikoa: MANEATZE PROZESUAK

Iraupena: 10 ordu

IE3: Oinarrizko elaborazioak prestatzen ditu eta jarraitu beharreko prozedurak bereizten eta aplikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Maneatze-prozesuak eta horiek izan ditzaketen aplikazioak deskribatzea eta sailkatzea.
2. Maneatze-prozedurak garatzeko beharrezkoak diren elementu guztien erabilgarritasuna egiaztatzea.
3. Kontserbatzeko teknikak ezarritako prozedurak jarraituz gauzatzea.
4. Lortutako emaitzen arabera har daitezkeen neurri zuzentzaileak zehaztea.
5. Kontserbatzeko bitarteko prozedurak garatzea, elaborazioen premiak eta ondorengo erabilera kontuan hartuta.
6. Eragiketa guztiak egin dituen osasun- eta higiene-araudia, laneko segurtasuneko eta ingurumena babesteko kontuan hartzea.

EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Aplikazio ugariko oinarrizko elaborazioak lortzeko prozedurak aplikatzea. • Aplikazio ugariko oinarrizko elaborazioak prestatzea eta lortutako emaitzak baloratzea. • Aplikazio ugariko oinarrizko elaborazioak kontserbatzea eta/edo lehengoratzea. 			X X X			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lehengaien errendimendu-fitxak. • Sukaldaritzako oinarrizko elaborazioak: Sailkapena eta eskema. • Prozesuaren egitura eta fase esanguratsuak. • Lortzen diren emaitzak. 			X X X X			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Sukaldaritzako elaborazioetan ordena eta garbitasuna baloratzea. • Sukaldaritzako elaborazioak gauzatzean zorrotz eta arduraz jokatzeko. • Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea. • Elaborazioetan aldakuntzak ekartzean ekimena eta izaera kritikoa izatea. 			X X X X			



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena. Unitate honek moduluko gainerako unitateekin duen erlazioa.	1	1 o.	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Ondoren adierazitako galdera egin daiteke hasi aurretik: Zer da maneatzeko elementu bat? Galderen bitartez ikasleak gogoeta egitera eta parte hartzeri animatu nahi dira, hartara, ikasleek aurretiaz dituzten ezagupenak aktibatuz, ikaskuntzako helburuekin loturak ezartzeko eta, era berean, maneatzeko erabiltzen diren elementu desberdinak aztertuz.	Ikasleek aurretik dituzten ezagupenak azalertzeko eta ikaskuntzaren xede diren ezagupenekin erlazioak ezartzeko.	OCDa Unitatea aurkezteko eskema grafikoa
J2 Belar aromatiko, maneatzeko barazki eta espezieen azalpen orokorra.	1-2	1 o.	X	X	Irakasleak belar aromatikoak, maneatzeko barazkiak eta espeziak azalduko ditu laburki. Azalpena indartzeko, adibideak jarriko ditu, lortu nahi den emaitzaren arabera. Maneatzeko elementuak aurkeztuko zaizkie ikasleei galderen bitartez. Izan ere, ikasleak parte hartzeri eta ekarpenak egitera animatu nahi dira, talde osoak ideia eta esanahi berriak partekatuz.	Ongailu desberdinen arteko desberdintasunak eta bakoitzak dituen elementuak ezagutzeko.	Belar aromatiko, maneatzeko barazki eta espezia mota desberdinen eskema grafikoa.
J3 Ongailuen erabilerari eta aplikazioari buruzko praktika autonomoa, elaboratzeko ezaugarriak eta lortu nahi den emaitza kontuan hartuta.	2	2 o.		X	Ikasleak sukaldaritzako elaborazio bat egingo du eta ongailu mota desberdinak jarriko dizkio; eta kasu bakoitzean lortu nahi den emaitzaren arabera, erabili beharreko proportzio egokiena aukeratu beharko du.	Ongailu desberdinen arteko desberdintasunak eta bakoitzak dituen elementuak ezagutzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Lehengai hautatua.



J4 Ardoak, ozpinak eta bestelako produktu alkoholdunak murriztu eta saltsak eta sukaldaritzako bestelako elaborazioak prestatzeko eta aromatizatze praktika autonomoa.	2-3-4-5-6	3 o.	x	x	Ikasleak ardo baten, ozpin baten edo bestelako elementu alkoholdun baten murrizketa egin behar du, ondoren, elaborazio jakin batean zuzen erabiltzeko.	Murriztu daitezkeen elementuak dagokien platerarekin edo plater egokienarekin erlazionatzeko gaitasuna garatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaia.
J5-E1 Hainbat elementu aromatizatzaile behar dituen sukaldaritzako elaborazio bat prestatzeko praktika autonomoa eta ebaluazioa.	3-4-5-6	3 o.		X	Ikasleak elaborazio bat maneatzeko eta aromatizatuko du, modurik egokienean, eta lortutako emaitza aztertuko du: testura, lodiera eta zaporea; zuzenketak egingo ditu beharrezkoa denean.	Maneatzeko elementu egokiena hautatzeko eta elaborazio mota bakoitzarekin erlazionatzeko gaitasuna ebaluatzeko. Maneatzeko elementuak proportzio egokienean erabiltzeko ikasleek duten gaitasuna ebaluatzeko.	Ontziteria eta lanabesak eta sukaldaritzako makina propioak. Ikasleei emandako lehengaia.

OHARRAK

- Aplikazio ugari oinarriko elaborazioak prestatzea multzoko edukiak garatzen dituzten unitate didaktikoak, modulu honetako UD guztiekin daude erlazionatuta zeharka, bai eta prestakuntza-zikloko modulu guztiekin ere. Izan ere, oinarriko elaborazioek produktuak lortzeko prozesua baldintzatzen dute. Eduki multzo hau Laneko arriskuen prebentzioarekin eta Ingurumenaren babesarekin dago erlazionatuta, manipulazio-prozesuari eta eraldaketa-prozesuari dagokienez.

5. unitate didaktikoa: KONTSERBATZEKO ETA LEHENEGORATZEKO PROZESUAK

Iraupena: 5 ordu

IE3: Sukaldaritzako oinarrizko elaborazioak prestatzen ditu eta jarraitu beharreko prozedurak bereizten eta aplikatzen ditu.

